

Lezoko liburutegiak Jon Garbizu olerki saria eta Lope de Isasti ipuin lehiaketa antolatu ditu

Haur eta gaztetxoek euren lanak azaroaren 16tik 20ra aurkeztu beharko dituzte Andreonen

LEZO. Andreone Lezoko udal liburutegiak hamaseigarrenez Jon Garbizu olerki saria eta Lope de Isasti ipuin lehiaketa antolatu ditu udazken honetan.

Bi txapelketa hauetan herriko 6 eta 15 urte bitarteko biztanleek edo adin tarte berdinetako liburutegiko bazkideek parte hartu ahal izango dute. Idazlanak euskaraz idatzitako olerkiak (bertsoak eta hitz jokoak barne) edo ipuinak izango dira, gai librekoak, inoiz argitara gabeak eta gehienez hiru orrialdekoak. Obrak azaroaren 16tik 20ra (biak barne) aurkeztu behar dira udal liburutegian bertan.

Lanak aurkezteko garaian zenbait baldintza bete behar dira. Adibidez, obra bakoitzeko gutunazal itxi bat aurkeztuko da (gutunazalaren kanpoko aldean lanaren izenburua eta egilearen adina azalduko dira, eta barruko aldean helbidea, telefonoa eta izen-abizenak). Sobre hori lanari grapaz josiko zaio. Bestalde, epaimahaia antolatzaileek izendatuko dute eta bere epaia apelaezina izango da. Gerta daiteke sarietako edozein eman gabe uztea, aurkeztutako lanek behar adinako mailarik ez baldin badute. Sariak Adinaren arabera bost maila desberdin egongo dira eta adin tarte bakoitzeko bai olerki lehiaketan baita ipuin txapelketan ere, liburuak erosteko 100 euroko bale bana emango dira.

Bi lehiaketetako sari banaketa abenduaren 11n liburutegian 19.00etan burutuko den ekitaldi batean egingo da.

Egileek beren lanak 2010eko urtarrilaren 31 bitartean berreskuratu ahal izango dituzte Andreone udal liburutegian. Epe horretan jaso ez direnak suntsitu egingo dira.

Azkenik, antolatzaileek azpimarratu dutenez, lehiaketan parte hartzeak azaldutako oinarri guzti hauek onartzen direla esan nahi du.

Bi lehiaketa hauek udal liburutegiak urtero haur eta gaztetxoen artean irakurzaletasuna pizteko xedearekin antolatzen ditu. Ekimen honekin batera hainbat ipuin kontaketa prestatu dira asteazkenero urria eta azaroan. Lehenengoa hilaren 14ean izango da. >a.m.